



Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

.....
Taxien tasen ordenantza
.....

IRUÑERRIKO TAXI ZERBITZUA ERA BATERATUAN EMATEKO ESKUALDEKO TAXIEN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

OINARRIA

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasuneri buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen Lehen Tituluan, IV. Kapituluari, 7. Idatz-zatian ezarritakoarekin bat, eta honen 12. Artikuluan dagoen baimena kontuan hartuta.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua. Honako kontzeptu hauek dira zergapeko egintzak:

- a.- Baimenaren ikus-onespena.
- b.- Baimena transmititzea.
- c.- Baimena soldatapeko gidari bat kontratatzeko.
- d.- Kontrol-txartel profesionalaren jaulkipenak, galtzeagatik edo antzekoagatik.
- e.- Gidari profesionalaren titulua lortzeko probetan parte hartzea.
- f.- Baimena ibilgailua berritzeko.
- g.- Irrati-igorgailuen edo zerbitzua hitzartzeko beste sistema batzuen baimena:
 - 1.- 5 baimen arte.
 - 2.- 5 baimen baino gehiago.
- h.- Ordezteak egiteko ibilgailu-taxiaren baimena.

ORDAINTZEAK

3. artikulua. Tasa ordaintzea zergapeko egintzaren arabera izanen da, kasuan kasu, honela:

a), b), d) eta e) letrak ordainduko dira ikus-onespena, transmisioa, baimena edo txartela behar duen jarduera egiten hasten den unean.

c), f), g), h), i) eta j) letrak egintza edo espedientea abiarazten duen eskaria aurkezten den unean.

Prozedura ez da abiaraiiko dagokion ordainketa egiten ez den bitartean.

SUBJEKTU PASIBOAK

4 artikulua. Taseñ subjektu pasiboak izanen dira administrazioak egindako jarduerak eskatzen dituzten persona fisikoak zein juridikoak, baita jarduera horien onura ematen edo eragiten dietenak ere.

TARIFAK

5. artikulua. Ordaindu beharreko tasak izanen dira ordenantza honen eranskinean ageri direnak.

KUOTA

6 artikulua. Tasa hauek ordaindu beharko dira Mankomunitatearen Kutxa Nagusian edo Entitate honetako kontura, egindako banku transferentzia baten bitartez.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza-aldaketa honek indarra hartzen duenetik eta 2021eko abenduaren 31 arte bertan behera geldituko dira zergapeko egintza hauek:

- a.- Baimenaren ikus-onespena.
- c.- Baimena soldatapeko gidari bat kontratatzeke.
- e.- Kontrol-txartel profesionalaren jaulkipenak, galtzeagatik edo antzekoagatik.
- g.- Baimena ibilgailua berritzeke.
- h.- Irrati-igorgailuen edo zerbitzua hitzartzeko beste sistema batzuen baimena:
 - 1.- Bost baimen arte.
- i.- Ordezteak egiteke ibilgailu-taxiaren baimena.

TARIFEN ERANSKINA

a.- Baimenaren ikus-onespena	63,00 euro
b.- Baimena transmititzea.....	3.606,75 euro
c.- Baimena soldatapeko gidari bat kontratatze	115,50 euro
d.- Kontrol-txartel profesionalaren jaulkipenak, galtzeagatik edo antzekoagatik	10,50 euro
e.- Gidari profesionalaren titulua lortzeko probetan parte hartzea.....	25,20 euro

f.- Baimena ibilgailua berritzeko 63,00 euro

g.- Irrati-igorgailuen edo zerbitzua hitzartzeko beste sistema batzuen baimena:

1.- 5 baimen arte 6,30 euro

2.- 5 baimen baino gehiago 6.300,00 euro

h.- Ordezteak egiteko ibilgailu-taxiaren baimena 63,00 euro